

Oihane Amantegi idazle zornotzarrak liburu ederra idatzi dau. Izenburuak berak dinoan moduan ipuina da, ipuin luzea. Euskera dotorean idatzitako

liburua da, samurra eta gozoa. Benetan gozoa, lehenengo atala tupelo eztiari buruzkoa da-eta, Van Morrisonen abestiaren izenburua (*Tupelo honey*) oinarri hartuta. Ama baten eskuak ekoizten dabeneztiaren deskripzioa da, eta ezintasun horrek janzten dau liburua hasikeratik amaiera arte.

Ama hori haurdun gelditu da, eta ume bikotxak daukaz sabelean, neska bi; baina erditzeko orduan bata bizirik jaio da, eta bestea hilda. Bizirik jaio dan umea konziente da ahizta hilda jaio dala, eta min hori aldean eukiko dau ahizta ibaiertzean topau dauan arte. Hilda dagoan ahizta txalupa baten etorri da Karontek lagunduta, eta ibaia zeharkatzeko txanpon bat emon beharko deutso Karonteri. Ahizta bien arteko harremana luzea izango da, bien arteko olgeta hasiko da, Karonte bera be lagun. Bizirik dagoanak txanpona lortu beharko dau hilda jaio zan ahizteari emoteko, horrek Karonteri ordaindu

deion. Azkenik, istorio guztietan gertatzen dan moduan agurra etorriko da, baina agurra ez da latza izango; ahizta biak onartutako agurra izango da.

Liburua irakurrita galdera bat etorri jatan gogora: umeak ba ete daukie heriotzearen konzientzia? Ba... bai antza; jaio ez danak heriotzea zer dan jakin ez arren.

Oihane Amantegi

Ibaiertzeko ipuina



elkar

